

Bilbotik abiatuz, 1936ko gerrari buruzko gogoetak: Egia historikorako ikerketa estrategiak eta guztion oroimenerako ekintza publikoak

Dr. Joseba Agirreazkuenaga

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea

1936ko gerraren inguruko oroimenak, ugariak dira, gerra zibilaren izaera eta 1975era arteko gerra-ondokoa ere eztabaidagune direlarik. Amnistiaren 1977ko legeak adiskidetzeko oinarriak jarri zituen. Hala ere, gerra eta frankismoaren biktimek ez zuten halakotzat hartzea lortu, ez eta lekurik izatea ere. Bilboko Udalak 1835etik 1936ra Bilboren alde egin zutenekin oroimen-politika publikoak egin zituen. Ondoren, herriaz, 1938an beraien omenezko Bilboko monumentu emblematikoa desagertu ere egin zen.

Bilboko biztanleen oroimenerako politika publikoak sustatzeko zera proposatzen da:

1. Gerra zibilaren ondorioz (1936-1937) eta frankismoaren diktaduraren ekimenez (1937-1977) Bilbon egon ziren biktimen errolda egitea. Errolda egiteko dokumentu-zentro berezia sortzea.

2. Bilboren historia zibiko eta demokratikoaren ikurrak berreskuratu behar dira, parke historiko-temaikoak eratuz.

3. Ezin dira ezkutatu gerra eta errepresioaren biktimak monumentu bakarrean. Bakoitzak zituen ideiekiko begiruneak ideia horiek aintzat hartzea ere eskatzen du. Horregatik, Bilbao demokratikoaren aldekoen aldi berean autogobernuaren sinbolo dena, parke historiko tematikoan erakitzea proposatzen da.

4. Erbesteratutako bilbotarren errolda.

Hitz gakoak: Bilbao, gerra zibila, oroimena, biktimak, parke historikoa

Reflexiones desde Bilbao sobre la guerra civil de 1936: Políticas públicas de memoria y estrategias de investigación para una aproximación a la verdad histórica

En el curso del tiempo observamos la producción de diferentes memorias sobre la guerra de 1936, la naturaleza de la guerra civil y la postguerra hasta 1975. La ley de amnistía de 1977 inauguró unas bases para la reconciliación. Sin embargo las víctimas de la guerra y la dictadura de Franco carecieron de reconocimiento y visibilidad.

El ayuntamiento de Bilbao desde 1835 hasta 1936, realizó políticas públicas de memoria para recordar a los defensores de Bilbao durante los sucesivos sitios. Sin embargo, en 1938, el monumento emblemático de los defensores de Bilbao fue desmontado. Finalmente, se proponen una serie de intervenciones:

1. La elaboración de un censo de la víctimas de la guerra la guerra civil (1936-1937) y de víctimas de la dictadura franquista (1937-1977) de Bilbao así como la creación de un centro documental.

2. La recuperación de los símbolos de la historia cívica y democrática de Bilbao, en un parque temático-histórico.

3. No se pueden esconder las víctimas de la guerra y la represión en un único monumento, confundiendo a quienes defendieron los valores democráticos con quienes los despreciaban. Se propone la creación de un parque histórico-temático en honor de los defensores del Bilbao, democrático y símbolo del autogobierno.

4. Un censo del exilio de los bilbaínos/as

Palabras clave: Bilbao, guerra civil, memoria, víctimas, parque histórico.

Reflections from Bilbao on the Civil War of 1936 and its Consequences: Public Policies of Memory and Research Strategies for an Approach to the Historical Truth

The starting point is the different memories that have succeeded each other concerning the war of 1936 and the post-war period up until 1975. The amnesty law of 1977 opened the way for reconciliation. However, the victims of the war and of Francoism lacked recognition and visibility.

Until 1936 the city council of Bilbao implemented public policies of memory concerning the defenders of Bilbao in the successive sieges from 1835 to 1874. However, after 1938 even the emblematic monument of liberal Bilbao disappeared.

Finally, a series of interventions is proposed with the aim of encouraging public policies of memory founded on solid scientific research:

1. A census is needed of the victims of the war(1936-1937) and the repression by Francoism (1937-1977) in Bilbao. Consequently a documentary centre is needed to promote research for the census of victims of the war and the repression.

2. It is necessary to recover the symbols of the civic and democratic history of Bilbao in the "Historical Park Town".

3. The victims of the war and repression cannot be concealed in a single monument. A clear differentiated monument to the defenders of democratic Bilbao is needed, which at the same time will be a symbol of self-government.

4. A census of the exiles from Bilbao.

Key words: Bilbao, Civil War, memory,victims, Historical Park.

1. 1937-1977ko urte garaia gogoratzeko erak

Era desberdinak daude iragana gogoratzeko. Frantzian, Pierre Norak zuzendu duen ikerketa taldeak hainbat ikerketa egin eta zuzendu ditu. Eta bere azterketa horietan oinarriturik, esana eta idatzia du, oroimenak banatu, zatitu egiten gaituela, aldiz, azterketa historikoak batu edo bildu. Eta gurean ere horrelako zerbait gertatzen ari zaigu. Egia esan, iragan hurbilari buruz halako ikuspegi eta kezka berriak sortu dira. Ezagutza egarria eta borondatea. Gure oroimenaren lerroak aldatzeko premia edo sortu da, orain arteko kontaturikoa egia osoa ez duelakoan jaso. Eta berehala konturatu gara oroimen ugari ditugula. Iragana gogoratzeko erak ditugula. Eta gai hau berau, aztertzekeo gai interesgarria dugu. Baina une honetan memoria edo oroimena eta azterketa historiakoaren artean dagoen aldea azpimarratu nahi nuke.

Herri bereko biztanleen arteko liskar eta guda zuzenak gertatu direnean, auzo berekoen arteko ezin ikusiak armen bidez erabaki, hilak tarteko ondorioz, iragana horren gaurkotzea bere horretan arazo bihurtzen zaigu. Iraganean gertatu dena ezagutzeko, unean uneko garaitik abiatzen gara. Eta azterketaren bidez, iragan hori ulertzeko ahalegina egiten dugunean ere, beti ari gara birpentsatzen, bigarrenez edo hirugarrenez geure kezketatik abiatuz, birmoldatzen iraganeko denbora eta narrazioa, berriz ulertzeko prozesua eten gabekoa dugu. Eta ildo horretan, gehien gehienez hurbilketak egin ahal ditugu. Kontua zera da hurbilketa hori tentuz eta zentzuz beterikoa den ala ez.

1937an Bilbon gerra aurrez aurreko gerra zuzena amaitu zenean irabazleek beste gerra prozesu bat hasi zuten. Eta oroimenak eta narrazioak gerra irabazleenak soilik izan ziren agirikoak. Gerra baten ondoren, hasieran irabazleak baino ez du agintzen eta ondorioz bere diskurtsoa indarraren bidez irabazleen egoera legezko bihurtzen saiatzen da eta horretarako egoera berria legitimatzeko ikuspegiak eta narrazioak sortzen ditu. Gertaturikoa irabazleen begi estutik agiri da. Ez dago berez azterketarik, epaiketa baizik eta epaiaren erabakia alde aurretik ikusia da. Galtzaile azpiratuak nahiko zuten iraupenean irauten, norberaren burua zaintzen. Hala ere, azpiratuak bere ikuspegia gogoratu eta landu egiten du. Ondorioz, iragana gogoratzeko moduak bide egiten hasten dira. Baina agirian behintzat isilik dirau, deus ere gertatu ez balitz bezala. Denboran barrena, belaunaldi berriak sortzen dira eta iraganak beste irakurketa hartzen du, bereziki, indar hegemonikoen nagusitza bere horretan oraindik orain irauten baldin badu: Horregatik aldi berrirako bategite edo kontsentsu berriaren premia agiri da. Batzuen eta besteen eskandaluak eta hutsegiteak ez baitira ezkutatzeko moduak. Propaganda bidez irabazleak zabalduko giak ez dute horrenbesteko egiaztatzerik lortzen. Gezurrak beraz agerikoak dira eta ezin daitezke ezkutatu ez eta isildu. Eta giro horretan, irabazleak agintean daudelarik, baina nolabait bareturik, egoera berrirako tesi eta baieztapen berri nagusia sendotzen da: “Guztiak gaiztoak”. Gizarte berrirako bategitea baieztapen hori hartzen du abiapuntutzat. Guztiak gaiztoak izan zire-

la esateak, oinarri artifizialak ditu. Iraganeko gertakizunak iraganekoak balira bezala ikusi eta aztertu gura dira. Baieztapen horrek, egiazko eztabaida ahal den neurrian, ezkutatu egiten du. Gertatu ziren egoera eta esperientzia mingarrienak ez dira gogoratuko ez aztertuko ahaleginez. Jakina, garai bateko irabazle izan direnek agintean jarraitzen dute. Beraz, baieztapen berria une batean, irabazle izan zirenen ustea baino ez dugu, agintean jarraitzeko erruak zirituz. Gure artean, 1936ko gerraren zergatiak eta aktoreen ekintzabideak, 1960-1980 urte bitartean, “guztiak gaiztoak” izeneko ikuspegian oinarritu zen.

Azkenik, bada beste joera bat: Iraganeko gertakizunak, bere gordintasunean arazoa arakatu eta berraztertu, egia historikoaren bila, hurbilketa sendago eta orekatua lortu guran. Zauriak irekitzea ez ezik, gatazkaren oinarriak berraztertzea bizikidetzaren alde egiten du. Sufrikarioaren gordintasuna adieraztea osasuntsua da gizartean bizikidetzeta berria sortarazteko. Iragana ez da beraz, garai batean, denbora eta gizartetik at gertatu zen fenomeno. Iragana gaurkotasunean txertatua da eta gizakiok herentzia ugariren biltzaile gara. Besteak beste herentzia horiek gureak egiten ditugu. Eta hor dago koska: nola egiten ditugu gureak.

Horra laburbilduz, 1936an militar eta zibil batzuk sortu zuten gerraren gogorapenaren bilakaera azken 70 urteotan. Eta garaia da egiak, era desberdineko egien bila hasteko, inor baztertu barik. Gerrak eta elkarren arteko borroka zuzenak sortzen dituen sufrikarioak biluztu behar ditugu.¹

2. Iragana aztertzeke bideak eta aukerak: Oroimena eta historiaren arten

Pertsonen arteko bizikidetzeta ez da izan ez eta izango erraza. Historian barrena hainbat adibide ditugu. Egoera tirabiratsuetan ezin ikusiak eta gorrotoak elkar bizikidetzaren oinarriak zalantzan jartzen ditu. Eta ondorioz giro horretan, herriaren zati bakoitzak bere ikuspegiaren aldeko sinesgarritasuna asmatzeko prozesuak abiadan jartzen ditu. Horra, bada, diskurtsoa deritzona asmatzen du, hizkuntza eta hizkera berezietz aberastuz. Beste era batera esanik, narrazioari ekiten dio.

Narrazioaren ahotsak ez dira unean unekoak soilik. Sorrera abiapuntua iraganekoa delakoan dago, ildo luzeko belaunaldiz belaunaldikoa eta berezkoa dela, azaldu gura da. Baina iragan hori noizkoa den, nondik sortua, nortzuen bidez, nolako giroan eta abar aztertzen saiatzen denean, orduan, gogorapen hutsa ez ezik, historia bihurtzen dugu.

¹ MARTIN BERISTAIN C. *Verdad, justicia y reparación. Desafíos para la democracia y la convivencia social*. San José, Instituto Interamericano de Derechos Humanos, 2006

Historia iraganekoak gaurkotasunez aztertzeko zientzia dugu. Historiaren bereizkuntza azterketan datza. Arazoak formulatzen ditugu eta problema gisa formulatu ondoren, egiaren sinesgarritasuna aurkitzen saiatzen gara metodo jakin baten bidez. Eta ondorioz ezagutza finkoa eta zintzoa sortzen dugu. Eta ezagutza hori beste ikuspegi batekoak metodo berdinen bidez lortzen badu, ezagutza horrek sendotasuna sakonagoa hartzen du. Eta horretarako, aplikazio maila, hau da oinarri enpirikoen bidezko bidea argi eta garbi ibiltzeko modua burutu behar dugu. Gizarte zientzietan eta historian bereziki ez da erraza baina posible dugu. Horregatik, historiazko ikerketa guztien ondorioak behin behinekoak gertatzen zaizkigu. Behin behinekotasun horretan datza zientziaren oinarria.

Gizateriak, bestelako literaturaren eta kontakizunaren ildoak, iragana eta gaurkotasuna istorioaren bidez ere adierazteko gaitasuna izan du. Eta istorioa ere beharrezkoa da historian barneratzeko. Historiaren bidez azterketa egitera beharturik gaude. Historia esaten dugunean, azterketa dagoela tarteko adierazten dugu.

Beraz, memoria edo gogorapena deitzen dugun hori iragana eta gaurkotasuna ezagutzeko bidetariko bat da, baina bere baitan historia jakin baten jabe izanik. Pertsonak gogoratzen dugunaren bidez batez ere geure bizitza esperimentalaren harian gertakizunak ez ezik, emozioak, sentimenduak eta gizakion baitako grina eta maitasun guztiak ere puri purian agiri eta adierazten ditugu. Eta azterketa historikoak elementu horiek ere arrazoizko bihurtzen ditu ulermen eta azalpen baterako. Historia burutzen dihardugunean, metodoa, paradigma sorburuak azalpena agiri zaigu. Eta ikerlari baten ondoren beste ikerlari batek ere aukera behar du izan, sorburu eta hipotesietan oinarriturik esperimentu zientifiko berdina errepikatuzko eta ulergarri izateko. Ondorio desberdinetara ere heldu daiteke eta eztabaidaren ondorioz, egia lortzeko hurbilketa berria antolatzen da. Horregatik esaten zuen M. Marbwachsek bere lan klasikoan memoria bukatzen den unean abiatzen dela historiaren eginkizuna.²

² HALBWACHS Maurice, *Les cadres sociaux de la mémoire*. Paris, 1952, 2 ed.(1925)

“C’est en ce sens qu’il existerait une mémoire collective et des cadres sociaux de la mémoire et c’est dans la mesure où notre pensée individuelle se replace dans ces cadres et participe à cette mémoire qu’elle serait capable de se souvenir.” p.VI

“ainsi le passé ne se détruirait et ne disparaîtrait qu’en apparence. Chaque esprit individuel trainerait derrière lui toute la suite de ses souvenirs. p.VII

Mais ce que nous appelons les cadres collectifs de la mémoire ne seraient que le résultat, la somme, la combinaison des souvenirs individuels de beaucoup de membres d’une même société. Ils serviraient, peut-être, à les mieux classer à pres coup, à situer les souvenirs des uns par rapport à ceux des autres. Mais ils n’expliqueraient point la mémoire elle-même, puisqu’ils la supposeraient.” p.VII

Les cadres collectifs de la mémoire ne sont pas constitués après coup par combinaison de souvenirs individuels, qu’ils ne sont pas non plus de simples formes vides ou les souvenirs venus d’ailleurs, viendraient s’insérer et qu’ils sont au contraire précisément les instruments donc la mémoire collective se sert pour recomposer une image du passé qui s’accorde à chaque époque avec les pensées dominantes de la société.

Eta egiaren bila saiatzen gara. Galderak ditugu, zalantzak ditugu eta ondoren erantzunak aurkitzeko gaude. Eta egia horiek geure belaunaldirako baka-rik ez dira esan behar. Egiaren arrastoa ondoko belaunaldikoentzat ere baliagarria izateko eginkizunean dihardugu.

Jakina, gaur egunean, egia lortzeko eginkizuna ez dela posible handik eta hemendik irakurtzen dugu. Ez dira garai onenak. Berriz ere, XVII mendean bezalaxe, Pirronismoaren eragina nabarmena da.³ Hau da, eskeptizismoa ageri zaigu nagusi eta oinarri hau aldarrikatzen du: egia eta bereziki historikoa ezinezkoa da. Halako hurbilpena edo sentiberatasuna eta hizkuntza horrelako egia. Egia neurritzko bihurtzen da eta gehienbat neurriaren ezagutza baino ez dugu lortzen.

Hala ere, ikerketaren bidezko ezagutzak lortzeko hurbilpenak, Leibnizek XVII mendean esan zuen bezala lortzeko gaitasuna ez dago ukatzerik. Eta horregatik urterik urte Bilbori buruzko Symposiumnak antolatzen ditugu.

Beraz egiaren aldeko hurbilketa azterketaren bidez lor daitekeela aldarrikatzen dugu. Azken urteotan lan ugari burutu eta argitaratu dira.⁴

Eta gertakizunen zerrenda eta interpretazio bideak lortzeko gaitasuna inork ere ez ezin digu ukatu. Adibidez, 1937ko abenduaren 22an, *La Gaceta del Norte* egunkariak Derion fusilaturikoen zerrenda argitaratu zuen. Baina gaurregunean fusilatu gisa ez dira inongo errolda edo izkribu ofizialetan agiri. Pertsona horiek fusilatuak izan zirela agiri ofizialen bidez ez dago esaterik. Eta agintari judizialek egoera hori ez dute zuzendu nahi eta J.M. Osoa de Txintxetru urte askoren buruan ere ez du lortu. Egia ezin da bermatu esparru batean oraindik orain baina badaude egon beste esparru batzuk hori salatzeko. Eta azken batean, gizartean egia indarrean jartzeko sortzen dira beste aukera batzuk. Eta honako hau, gure Symposiumnak horretarako aukera eta bide dira.

3. Setioak: Bilboko oroimen publikoaren ikurra.

Gaur egungo aroan, iraultza liberalen garaian, Europan barrena hainbat gerra biztu ziren. Bilboko biztanleek gerra gordinak eta zuzenak bizi izan zituzten. Adibidez, 1794an jadanik, armada frantsesa erasotzaile zenarekin hitzarmena sinatu zuten. Horrela hiriaren birrintzea ekidin zuten. 1808an aldiz, Napoleonen armadak desegin egin zuen eta sarraskia sortu. 1835ean, karlisten garaiko setioak hasi ziren. Eta garai horretan erresistentzia giroan, bilbotarren

³ AGIRREAZKUENAGA J. "Historian barrena: historiografiaren arazoak" in *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindaria eta berrikuntza historiografikoak* J.Kintana & K. Artetxe (arg.). Bilbo, UEU, 2002, pp. 155-168.

⁴Adibide gisa, lan jakingarriak : ESPINOSA F., *Contra el olvido. Historia y memoria de la guerra civil*. Barcelona, 2006

CHAVES Julian (coord.) *Historia y memoria de la guerra civil en Extremadura. Badajoz agosto de 1936*. Badajoz, Diputación de Badajoz, 2006

artean nortasun zibiko berria eraiki zen. Bilbok azpiratu ezineko “invicta” titulua irabazi zuen. Bilboko udaletxe demokratikoak, 1870eko maiatzaren 20an, Carlos Bellverrek asmatu zuen monumentu eskultoriko ederra, Mallonan, eraiki eta inauguratu egin zuen. Aurrerantzean bertan, Bilboko nortasunaren ikur bihurtu zen. 1937an, Bilbok beste setio bat jasan zuen. Karlistak berriz ere hiriaren kanpoaldean erasotzeko prest. Erakunde berri batek, Eusko Jaurlaritzak, “burdinezko harresia” eraiki zuen. Baina defentsa hori, 1914ko gerra estrategian oinarriturik zegoena, 1937an egiten zen gerrarako ez zuen baliorik. Artilleria eta abioen bidezko gerran delako harresiak ez zen azpiegitura irmoa. Erasotzaileek abioez eta artilleriazko nagusitza erabatekoa zuten. Bilbo berehala erori zen. Izan ziren bakezko hitzarmenak egiteko proposamenak eta ahaleginak, berriz ere, hiria birrindua izan zedin. Baina lehen alkate frankistak, J. M. Areilzak, 1936an hauteskundeetan galtzaile izan zena alegia, argi eta garbi adierazi zuen 1937ko uztailean: *“Bilbao se ha rendido” y un poco después esta otra. “Los gudarís fueron los que al entregarse salvaron Bilbao. Que se conozca de una vez y para siempre la verdad: Bilbao no se ha rendido... Que quede esto bien claro “Bilbao conquistado por las armas”*⁵

Beraz, ez zegoen aukerarik. Garai bateko liberalen seme eta ilobak, 1937an, 1874ko militar karlisten omenez ekitaldiak antolatzen zituen. Areago, 1938ko lehen egunean, 1874ko gerran ibilitako karlistek omenaldia jaso zuten, El Sitioko egoitza errepublikano izandakoan. Horrez gainera, urte berean, Mallonako monumentua desegin egin zuten eta desagertu arazi, zatiak Bilboko euskal museoan gordetzen direlarik. 1938ko ekainaren 2an Bilboko alkateak, J. Gonzalez de Careagak, monumentua *Movimiento Nacional* delakoaren asmoetara egokitu behar zela agindu zuen. Arkitektura sailekoek estatua kentzea proposatu zuten. Eta inskripzio berria ere jartzea agindu zuen, historiaren berrirakurtze ideologikoa eginez.⁶

⁵ Areilzaren aipaturiko diskurtsua, 1937ko uztailearen 8an eta bere ekintzabide politikoa politikagintza Bilboko alkatetzan aztertzen da honako liburuan : ANASAGASTI I.-ERKOREKA J., *Dos familias vascas: Areilza Aznar*. Madrid, 2003, orr. 145-148

⁶ Ramon Talasac-ek, El Sitio elkarteko historia burutzen diharduenak, 2002ko martxoaren 9an datu eta informazio guztiaren berri eman zidan eta neure esker ona agertzen diot.

Horra agindu zuen testua baina azkenik jarri ez zena, monumentua apurtu zelako: *“Este monumento formaba parte del mausoleo erigido a los soldados forales y auxiliares que sucumbieron en la Villa durante el Sitio de 1874. El Ayuntamiento Nacional de Bilbao acordó el traslado de estas piedras que cobijaron cristianamente sus restos, cuando la Revolución Nacional de Franco había rescatado con el esfuerzo heroico de sus soldados la libertad de España.*

El 19 de junio de 1937, los soldados de España libertaron la villa de la tiranía comunista y de la barbarie del separatismo. Y los nietos de quienes bajo estas piedras reposaban lucharon unidos bajo las banderas victoriosas, mezclando su sangre en el mismo sacrificio, a los que en cien años de inalterable lealtad mantuvieron vivas las sagradas esencias de la tradición española haciendo frente al común enemigo de la libertad moral del hombre y de la unidad de la Patria.

Beraz, aurrerantzean, memoria historikoa eta publikoa, zati batena baino ez zen izango. Eta joera hori, urte luzetan gertatu zen indarrean. Inpostura historiografiko berrian, R. Sanchez Mazas J.M. Areilza, Javier Ybarrak idatzi zuen *Política nacional en Vizcaya* liburuaren prologoan: “*Asimismo, en plenos siglos XIX y XX, las ocho o diez familias, que mantuvieron la política nacional de Vizcaya se adscribieron en diversas fases a las formas liberales de la época, pero en su íntimo sentido de la continuidad y organicidad “familiares”, fueron tan tradicionalistas, si no mas, que los partidarios de Don Carlos, y con ellos acabaron, fraternal y heroicamente unidos, en una tercera guerra civil para defender a un tiempo la libertad y tradición de España, la España “Una, Grande y Libre” que canta el mote del renovado y a la vez tradicional escudo*”⁷

R. Sanchez Mazasen ustez, historia iragana justifikatzeko idazten da “*Pero dar con el verdadero sentido, o sea, saber que la política tira a ser justiciera, pero que la historia debe tirar a ser justificadora, sólo lo hacen los mejores historiadores*”⁸ Horra bada narratiba berria, Bilboko historia berria asmatzen hasi ziren. Liberalismoan oinarritzen zuten beraien narrazioa, eta liberalen herentzian jartzen dute diktadura berria. Diktadura, askatasun berriaren adierazletzat agiri da eta une berrian, tradizionalismoa liberalismoarekin orpoz orpo loturik. Karlistak liberalak bihurtuz eta alderantziz, horra beraien narrazioen aldrebeskeria eta aipatzen dudana inpostura. Ikuspegi hau, R. Sanchez Mazasek modu sofistikatuago batean eta ikuspegi literario batetik ederki asmatu eta idatzia, Banco Bilbaoren mendeurreneko libururako burutu zuen: “*Apología de la historia civil de Bilbao*”.⁹

Laburbilduz, azken batean diktaduraren agintea bermatzeko, idatzi zituzten Bilboko historiari buruzko saiakerak, mistifikazio historiografikoaren erakusle dira.

Bajo el signo de Franco, y a través del martirio innumerables de los caídos, la Revolución Nacional puso fin al odio entre los españoles, liquidando para siempre las discordias civiles, en una superior unidad asentada en la fe de Cristo y en las Tradiciones históricas de España.

El Ayuntamiento Nacional de Bilbao en 19 de Junio de 1938 del II año triunfal, acordó grabar estas inscripciones. “

⁷ SANCHEZ MAZAS R. “Prologo”, YBARRA J., *Política nacional en Vizcaya*. De la Restauración a la República. Madrid, 1947

⁸ Aipamen hau gutun batean adierazi zuen. Ikus: ANASAGASTI I.-ERKOREKA J., *op.cit.* 284 orr.

⁹ *UN siglo en la vida del Banco de Bilbao. Primer centenario (1857-1957)* Bilbao, 1957, orr. 66-116.

4. Gerra zibilaren hasiera eta bukaera. 1936-1975

Francok, 1939ko apirilaren 1ean gerra bukatu zela aldarrikatu zuen. Gerraren fase bat bukatu zen, gerra zabala, indar armatuen bidezko gerra zuzena. Bi bandoen arteko oreka hori amaitu egin zuen eta Francoren aldekoak irabazle atera. Ez zen egon Azañak aldarrikatu zuen bakearen aldeko bizikidetza proiektu berritailerik. Irabazleek beste gerra bat hasi zuen. Hobe esan, agintean zeuden agintariak gerraren beste forma batzuk aplikatzen hasi ziren: Aurkarien erabateko likidazio fisikoa. Aurrerantzean irabazle eta galtzaileen arteko zubirik ez zen irekiko. Irabazleek bere legea ezarriko zuten. Eta hori segurtatzeko, aurkarien kontrako oinarri guztiak ezarri ziren indarrean. Francoren bakea, 25 urteurrenean aldarrikatu zena, bando baten bakea baino ez zen, aurkarien erabateko deuseztapena helburu estrategikotzat zuena, agintean mantentzeko. Eta Franco diktadoreak praktika hau 1975 arte mantendu egin zuen. Biolentziaren erabilpen politikoa aurkariak hiltzeko frankismoaren bereizkuntza nagusia da. Biolentzia politikoa kulturaz ofizializatu egin zen. Beraz, ez da harriztekoa adierazten badugu frankismoa gerraren jarraipena izan zela baina beste modu batean bideratua, beste gerra mota baten bidez asmatua alegia. Eta 40 urteren buruan, errepresioaren bidezko gerra, intentsitate desberdinez aplikatu zen. Ez da berdina, 1940ko hamarkada edo 1960koa. Baina sistemaren funtsa bere horretan izan zela, egiatzatu daiteke. Beraz, gerraren biktimak ez dira soilik 1939 artekoak, 1975 artekoak baizik. Jakina, agintean zeudenak ez ziren gai gerra hesiak 1960ko hamarkadan jartzeko. Estatuko administrazio aparatuan, frankistek ez zirenak ere txertatzen hasi ziren. Unibertsitatean bereziki nabarmena dugu. Baina sindikatuen egitura ere beste horrenbeste gertatu zen.

Horregatik, agintean zeuden militarrek bere egitekoa gerraren luzapen gisa ulertzen bazuten 40 urteko bilakaeran aldaketak nabarmenak izan ziren. Estatuaren berrantolaketa berriak gizartearen eskakizunetara, egoera batzuetan behintzat, egokitu beharra izan zuen. Baina oraingoa ez dugu frankismoa aztertzeko garaia. Franco hil ondoren, frankismo erakundetuak jarraipena izateko zorian izan zen. Estatuaren antolaketa bereziak jarraipena izan zuen. Eta ildo horretan jarraitzeko ahaleginak alde batean baldin bazeuden beste alde batetik, hainbat pertsonen eraginez bestelako bizikidetza eta Estatu antolatzeko egitasmoa adierazi zen, era eta modu desberdinez, jakina. European, oinarri demokratikoetan sorturiko Estatu ereduak zeuden. European Estatu demokratikoen arteko komunitatea berebiziko indarra zuen. 1930eko hamarkadarekin parekatuz gero desberdintasun nabarmena.

Eta horrela, 1977an amnistiaren aldeko mugimendu handia antolatu eta bideratu zen. Eta hala moduzko hauteskundeak ere antolatu ziren. Eta giro horretan, sortu zen Espainian Parlamentu berria, Cortes berriak.

5. Amnistia legea eta iraganeko genozidio ahaleginaren amaiera.

1977ko urriaren 14an, Espainiako Kongresu berriak, amnistiaren legea onartu egin zuen. Indar demokratikoek eskatu eta bultzatu zuten legea. Baina lege horrek demokrata ez ezik, frankismoaren garaiko kolaboratzaile eta kriminalak ere zuritu eta babestu egin zituen. Parlamentuan, demokrata antifrankista izandakoen diskurtsoak irakurtzen baditugu mezu bat agiri da errepikaturik behin eta berriz: Oinarri berriak, bizikidetzaren berria sortzeko bidea, premiazkoa zirela. Aipatzekoa Josep Benet katalan senatariak egin zuena, gogoratuz bera errepublikaren aldeko soldatu izan zela. Bere ustez, ez alde batekoa edo bestekoa ezin zen izan amnistia legea. Bateratzeko prozesuan hasteko, gutxienezko premiak beharrezkoak ziren. Eta honek kostuak izan zituen jakina, bereziki, demokraziaren alde borrokatu zuteneantzat.

Aurrerantzean, beraz, amnistia lege berria, ikuspegi penal batetik diktaduraren garaian errepresioaren erantzule izan zirenak aske eta zurituz gelditu ziren. Jakina, demokrata guztiek ere, bizitza eta espazioa publikoa irabazten zuten. Amnistia legea, irabazle eta galtzaileen arteko dialektika hori gainditzeko lehen oinarria izan zen eta bereziki indar demokratikoen bidezko iniziatiba alegia. Baina amnistia ekimen erabateko eta osoa ez zen izan: Izandako hutsuneak ere nabarmendu behar ditugu: Militar demokratikoak ez ziren amnistia legean sartu (UDM, errepublikanoak). Gerra garaian eta Frankismoan Errepresioaren arduradun guztiek erantzukizunak saihestu zituzten. Eta hain zuzen ere, amnistia legea aplikatuz, beste egoera bat sortu zen. Biktimen antifrankisten zorigaiztoa hasi zen. Ez ziren agiri inondik inora. Berez, legea, frankismoaren biktimen nortasuna desagertu egin zen. Ikuspegi orokorretik begiraturik, inon ere ez baleude bezala jokatu dute gobernu guztiak, Eusko Jaurlaritza barne. Bereiztu beharra dugu penal ikuspegia eta moralala. Biktimak erreparazio moralala izateko eskubidea dute. Eta amnistiaren legearen ondorioz, horixe urratu egin zen. Aurrerantzean, frankismoa ere, ikuspegi legal batetik zurituz azaltzen zen. Dirudienez diktadurak ez zituen biktimarik sortu. Eta amnistia legea onartu zela 30 urte iragan ondoren, horretan dihardugu.

Politika eza eta iragana saihestea aukera indartsua bihurtu zen. Eta horixe gainditzeko gai gara une honetan. Eta gure esparrua Bilbo dugu.

Beraz, iraganari buruzko politika desberdinak egiteko aukerak oraindik indarrean daude eta gaur egun inon baino gehiago. Gerra zibila eta frankismoa gainditu gabeko arazoa dugu, erreparazio hori bideratzen ez dugun bitartean. Horregatik, kontua ez da arazo zaharrak berpiztea, ezkutaturik eta azpiraturik egon diren egitasmoak begi bistan agertzea baizik. Eta ondorioz, aintzat hartzea gizartearen adiskidetzeko prozesu luze zabalean. Eta guzti hau ikerketa historikoaren bidez lor daiteke.

6. Biktimen zorigaiztoa gainditzeko bideak Bilbon: Ikerketa historikoak indartu memoria desberdinen bidezko jokamoldeak elkarbidean jorratzeko.

1979ko udal hauteskundeen bidez, tokian tokiko agintea aldatu egin zen. Aginte politikoaz ari naiz. Bilboko udalaren kasuan, kendu egin ziren ikur frankista gehienak. Molaren monumentua Arenalean zegoena ikurrik nabarmentarikoak zen eta kendu egin zen. Kale izendegia aldatu. Baina, frankismoak zapalduriko pertsona konkretuen alde ez zen deus egin. Eta 1979an, oraindik, hainbat pertsona, gerra zibilean eta frankismo garaian azpiratua izan zena, bizi zen.

Zer egin gaurko egunean? Lehendabizi, biktimen zerrendak. Horra oraindik orain egin ez dugun zeregin nagusia.

1936-1937ko Eusko Jaurlaritzako aginte garaiko biktimen zerrendak frankismo garaian egin ziren. Symposium honetan ere aztertzen dira.

1937-1978 arteko biktimen azterketarik ez da burutu.

Behin bando guztietako biktimen zerrenda burutu ondoren, argi eta garbi nire iritzia ere argitu nahi nuke: Ezin dira nahastu gerra zibilaren garaiko biktima guztiak. Hau da biktimak dira guztiak, gerra zibilekoak eta diktaduraren garaikoak. Baina biktima bakoitzak bere izaera du, bere zergatia, bere ustea eta guk ez dugu eskubiderik biktimaren nortasuna desegiteko edo desagertzeko, totum revolum baten baitan.

Horregatik, ezinezkoa da biktima guztiak monolito berean lurperatzea. Bilbon gerra zibilaren garaiko biktima guztien omenezko oroitarria egin da. Baina hori ez da nahiko. Horrelako zerbait frankistek egin nahi izan zuten Valle de los caídos delako monumentuan.

Bereiztu eta aintzat hartu bai baina azterketa historikoaren bidez. Guk jakin badakigu biktima guztiak ez zirela zergati berdinez izan eta ez dute izan behar 10 edo 70 urte igaro arren. 1936an egoeran legezko eta zuzenbidezko egoera zegoen indarrean, euskal autogobernua ere legezko eta zuzenbidezko estatutaren baitan antolatu zen. Eta egoera horren aurka batzuk indarrez eta bortxa erabiliz altxatu egin ziren, garaian garaiko bide demokratikoak baztertuz. Izenak kontextutik ezin ditugu atera, bere osotasunean eman behar ditugu.

Azken batean, biktimen ohore eta izaera nortasuna errespetuz hartzeko, garrantzitsua egia historikoa bere horretan ikertzea eta azaltzea. Ikerlari moduan jokatu behar dugu eta ez dugu eskubiderik guztiak erantzukizunen sako berean sartzeko.

Biktima guztien doluminak aintzat hartzea gauza bat da, beste bat, biktima talde bakoitzaren zergatiak ezagutzea eta bere horretan biktima bakoitzaren egia azaltzea. Guztiek dute bere zergatia eta hori ez da ezkutatu behar.

Beraz, memoria publiko batean, samina eta bakoitzaren nortasuna zaindu behar da baina ikerketaren bidez, biktima guztien bisibilitatea lortu behar dugu. Frankismoaren garaian, genozidioa sortu bide zen. Ikusi besterik ez dugu 1940ko hamarkadan fusilaturik eta presondegietan hildakoen zerrendak. Josep Benet nazioarteko epaimahaia eskatu zuen guztia aztertzeko, ez ondorio penalak ateratzeko, azterketaren bidez egia lortzeko. Garai batean ezinezkoa izan zena, gaur egunean indarra hartzen ari da. Egiazko batzordeak sortzen hasi dira.¹⁰ eta Bilbon ere egiazko batzordea sortzeko garaia iritsia da.

Laburbilduz:

1. Ikerketa gunea, burutu beharko litzateke, frankismo osoa aintzat harturik.
2. Bilboko kasuan adibidez, Bilboren defendatzaileak eta erasotzaileak, ezin dira monumentu berean nahastu. Gerraren errua guztiena ez zen izan. Erasotzaileak eta erasotuak daude. Ikerketa zientifikoaren zintzotasunak eta egia eskatzen du bereizketa hori.
3. Aztertu eta argitu behar dugu. Baieztatu eta ezeztatu. Ezin dugu onartu, inpunitate ekitatiboa, errua guztiena balitz bezala.
4. Zergatietan sartu behar dugu. Ezin dugu onartu, arazoa bere horretan besterik barik, berez itzaltzen. Iraganaren ikuspegia geure artean dugu, geure baitan, batekoa edo bestelakoa. Ez dagoenik ezin da esan. Baina besterik gabe horretan uztea aukera bat da. Jakina ikuspegi hau dute-nek, ez dute nahi, politika publikoari buruzko eztabaidarik. Beraien itxurazko iraganean eroso daude.
5. Frankismoak 1970-1975ean ezarri zuen diskurtsoa eta narratiba gainditu behar dugu, balore demokratikoak aintzat harturik.
6. Politika publikoak oinarri sendoak behar ditu izan:
 - Indartu eta zabaldu behar dira, balore demokratikoak, bizikidetzaren aldekoak.
 - Autogobernua, euskal gizartearen balio demokratikoen baitan agiri da, bizikidetzaren ildoan.
 - Bilbon Setioak izan dira ikur bereizgarriak, XIX eta XX mendean. 1835-1937. Eta setioak aintzat harturik diskurtsoak eta egia aztertzen eta berreztabaidatzen ahalegindu behar dugu.

¹⁰ Lehendabizikoa Valentzian antolatua da jadanik, 2007an, Symposiumna amaitu eta ondoren.